



Aterpeko ordezkariak eta Zaballos alkatea elkarlan akordia sinatzen.

Merkatarien alde

Hirugarren urtea da Aterpeak eta Udalak elkarlan akordioa sinatzen dutena

Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea Merkatarien Elkarteak esparru-hitzarmena sinatu dute, berriro ere. Era honetara, bi erakundeek elkarlanaz herriko komertzioa dinamizatzeko hainbat ekintza egingo dituztela, Stock eta Saldoen III. azoka, esate baterako, hitzartu dute. "Herriko merkataritza sustatu nahi dugu, krisi ekonomiko latz honetan haiek izan baitira kaltetuenak" adierazi zuen Jesus Mari Zaballos alkateak. •

Zigorrak zaborra modu desegokian botatzeagatik

Lasarte-Oriako Udaleko Zerbitzu Publikoetako sailak hemendik aurrera zaborra modu egokian ateratzea zuzenago ikuskatuko du eta ezarritakoa betetzen ez dutenentzat zigorrak izango dira.

Izan ere, azken hilabeteetan egin diren ohartarazpenei kasurik egin ez zaenez, Udalak neurriak hartzea erabaki du ohitura horiekin amaitzeko.

Honek guztiak, sailaren hitzetan, Udalerriko garbitasuna hobetzea du helburu.

Altzariak

Horregatik, Zerbitzu Publiko-

etako sailak herritarrei gogoratu nahi die, altzariak ateratzeko eguna asteazkena dela, 20:00etatik aurrera. Eta osteguna jai eguna den kasuetan, astearte gauean atera behar dira, aipatutako ordu berean.

Lurrazpiko kontainerrak

Era berean, sailetik azpimaratu nahi dute, berriro ere, lurrazpiko kontainerrak dauden eremuetan zaborra hauek bota behar dela, ez dela lehengo Z puntuetan edo kontainerren ondoan utzi behar. •



Altzariak asteazkenetan atera behar dira, 20:00etatik aurrera. Arg.: L-O Udalak



Mugikortasun astea astelehenetik aurrera

Txirrinda izango da, aurtengoa ere, protagonista. Horregatik, astelehenean bizikletaz bidaia egiten den familia bati buruz jakinoko dugu eta ostiralean, berriro, bizikleta martxa eta haurrentzako jolasak egingo dira, Andatza plazan. /5

KULTURA /3

**Landaberri
Antzerki Eskolak
izena aldatzea eta
eraberritzea**

GIZARTEA /4

**Yoga Eskolak
hitzaldi eta bideo
emanaldiekin hasi
du ikasturtea**

KIROLA /6

**Garcia eta
Egañaren
oroimenezko bola-
jokoa jokatuko da
igandean**



- Euskara agiriak
- Hizkuntza profilak (1-2-3)
- Euskalduntzeko maila guztiak

- EGA
- Autoikaskuntza

Geltoki kalea 17, behea
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863
lasarte@aek.org



Neure kabuz



Gol-gool-gool...

Uda bukatu eta, umeak eskolara joatearekin batera, futbol ligaren hasierak markatzen du ziklo aldaketa.

Ni ez naiz futbolzale. Hori ez bertute ez akatsa ez da. Ez zaizkit interesatzen baloia jira-birak, kito, horixe da guztia. Ondoren jokatzeko duenak irabaz dezala eta amen. Interesgarria gertatzen zait futbola, ordea, gizarte gertaera gisa. Dugun gizartearen ispi-lu zehatzenetakoa dugu futbola. Eta, nola esango dut... islatzen duen irudia ez da harro egoteko modukoa, nire ustez. Futbolaren zoritzararako, gaur eta hemen, opiotik du gehiena eta errazagoa da forofoak aurkitzen futbolzaleak baino.

Gauzak horrela, narkotizatuta gaudela, golak bata bestearen segidan sartzen dizkigute. Sartu nahi diguten azkena Anoeta estadioaren berritzearena da. Apenas 15 urte pasatxo guztion diruarekin eta bi langileen bizitzarekin (biktima horientzat ez dago plakarik, hemen etika plastilina dago) eraikitakoa berritzeko 80 milioi gastatu nahi dituzte orain. Gastu sozial edo kulturarako ez dago dirurik. Ez eskatu lokal bat edo dirulaguntza bat, ze, ez dago. Horretarako ez dago. Segun eta zertarako ez dago. Oporako, ordea... Ba, hori, plastilina berriro. Eta, kontuz, ez dut nik esango logikarik ez duenik, e!

Eta pena da, ze, zalanztarik ez dut, posible da futbolzale porrokatu bufandero turutalari desafinatuena izateko forofo izan gabe. Benetako pasioak ez du itsutzen. Honetan ere, gurea da azken erantzukizuna.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Imanol

Zorionak Imanol! Zure gurasoen, aiton-amonen, Maite eta Richarden partez!



Nahia

Zorionak! Urteak bete eta gainera mattia alboan. Ea mojito goxua dastatzen dugun!



Pili

Bua txabal! Zein ondo mantentzen zaren 30etik gora betetzeko. Zorionak guapa!



Jon

Zorionak Jon! Familiaren partetik eta zure anai Julenen partetik!



Elena

Primeran dagoen kua-rentona eder bat, 20ko bi neskatilen truke aldatzen dugu. Zorionak!



Sara

Koxkortu zaigun 8 urteko neskatoni mila kilo zorion familiaren partetik. Ongi pasa.



Helena

Zorionak politita, goza ezazu zure eguna.



Joana

Zorionak guraso, Enara, aitona-amoneta Maitearen partetik.



Maite

Zorionak eta 8 muxe handi famili osoaren partetik.



Unax

Zorionak pottoko, amatxo, aita txo eta Oierren partetik. Oso zoriontsu egiten gaituzu.

Jaiotzak

Hodei Santos
Antia, irailaren 9an
Eider Redondo Juarez,
irailaren 7an
Maria Escribano Hernández,
irailaren 7an



Heriotzak

Jose Luis Zabala
Beristain, irailaren 11n
65 urte zituela.



Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Bi garaje alokatzen ditu, bata itxia eta bestea irekia Urbarteko Green plazan. Harremanetarako zenbakia, 943 492 558.

Lan-eskaintzak

• Irailetik aurrera, Finestrat-eko kalan apartamentua alokatzen dut. Bi logela, egongela, bi komun eta sukaldea ditu. Urbanizazioak igerilekua eta padel pista ditu. Hondartzatik 150 m-ra dago. Harremanetarako zenbakia, 667 731 456.

• Emakume euskaldun bat behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 610 953 258, Pili; 13:00etatik 15:00ak bitartean deitu.

Lan-eskariak

• Mutil gaztea eskaintzen da erakuntzan edo baserriko lanak egiteko. Harremanetarako zenbakia, 677 593 772.

• LH eta DBHko haurrei klase partikularrak emango nituzke. Harremanetarako zenbakia, 670 219 022, Lorena.

• Lasarteko neska gaztea eskeintzen da kurtsoan zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.

• Andre bat eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Euskaraz badaki. Harremanetarako telefonoa, 618 097 676.

• Ingelesa ikasteko klase partikularrak ematen ditut astelehenetik larunbatera. 693 601 222.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 17

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 18

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 19

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucua, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Astelehena, 20

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteartea, 21

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Asteazkena, 22

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Osteguna, 23

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Kukuka eskolako partaideek herritarrek dantzan eta antzerkian parte hartzera animatu nahi dituzte.

Kukuka iritsi da herrira

Landaberri Antzerki Eskolaren eraberritzea

Orain dela 8 urte Landaberri Antzerki Eskola bezala sortu zena, Kukuka antzerki eta dantza eskola da orain.

Bederatzigarren urte muga betetzear dagoela, opari gisa taldearen eraberritzea eman da eta hemendik aurrera, izaera juridikoa eta antolakuntza berria du antzerki eta dantza eskolak.

Ia 50 talde eta 500 ikaslek osatzen duten eskolak, sendotasuna eta herri izaera hartu du. "Poliki-poliki jaiotako antzerki eta dantzaren mundu hau, hazten eta hezten joan da, egun errealtate handi bat osatuz," azaldu digute ardura-dunek.

Antzerki eta dantza mugimendua sendotzen joan da, herrian zabalduz "modu berezi batean lortu dugu bai antzerkia eta bai dantza sentiaraztea," azaldu digute.

Landaberri ikastolan oinarri sendo bat eratu da, eta aurreko urtean Sasoeta-Zumaburu eta Añorgako Amasorain ikastolan taldeak sortu ziren, baita Solaskide talde

bat ere. Aurtun, institutua ere zabalduko da eskaintza.

Eskolak hartu duen dimentsioaren ondorioz, "egitura juridiko eta antolakuntza moldatu behar izan ditugu. Eta estatutuak egin eta erregistratzerako orduan, izen berria eman behar izan diogu," gaineratu digute.

Nondik dator izena?

Kukuka izan da herriko antzerki eta dantza eskolarentzat erabaki den izena.

"Kuku egitea polita iruditzen zitzaigun. Kuku egitea kantatzea eta jolastea da, beraz, hauekin lotutako izen bat da," azaltzen digute "gainera kuku eginez aritzen gara, izen jostalaria eta kantaria da, gure eskolak izan nahi duena," gaineratu dute.

Izen berezia, beraz, baina gozamenarekin eta jolasarekin lotzen dutena.

Antzele edo dantzari izan

Ikasturteari hasiera eman baino lehen, izena emateko epea dago. Dantza garaikidean edota antzerki munduan

trebatu nahi baduzu orain duzu aukera.

Urtero bezala, etxeko txikientzako eskaintza guraso elkarten bidez jakin araziko da Landaberri ikastolan, Sasoeta-Zumaburu ikastetxean eta, aurtun, baita institutuan ere.

Eskolaz kanpo, batxilergoa bukatu duten gazteek eta helduek ere bere lekua izango dute "gazteak arratsalde, goizez ikasten dutelako eta helduak, goizez zein arratsalde."

Ordutegia markatu gabe dago, "nahiago dugu jendeak izena eman eta libre dituen egunak esatea, gero taldeak antolatzeko."

Izena eman nahi dutenek bi aukera dituzte, hilaren 22an eta 23an, asteazkenen eta ostegunetan, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak bitartean kulturetxera hurbildu eta irakasleei informazioa eskatu edo bestela honako telefono zenbakira deitu, 655 847 345.

Helduen ikastaroen prezioa 20 eurotako da hilaletara eta gazteena berriz, 15 eurotako. •

GIZARTEA

Ormazabal loradendaren inaugurazioa

Alpargategi zahar eta Alpagategi berri etxeak erauntsi ziren 2007ko maiatzean. Ormazabal familiak bertan zuen denda, alpagategia lehenik eta azkeneko urteetan, Ormazabal loradenda. Hau lekuz aldatu behar izan zen, Zumaburu kalera, eta bertan egon dira lanean orain arte.

Izan ere, Lizarriturrienea etxea zegoen lekuan eraikuntza berria egin dute eta Ormazabal loradenda bere jatorrizko kokalekura bueltatuko da, Kale Nagusia.

Gauzak honela, bihar 12:00etan, lokal berriaren inaugurazioa egingo dute loradendakoek. Trikitixa talde batek dendako inguruak, Goikale eta Kale Nagusia, girotuko ditu 11:30etik aurrera eta herritarrei inauguraziora hurbiltzeko gonbita egingo die. •

IKASTAROAK

Gazte ikastaroak iritsi dira

Japoniar sablean, bisuterian, batukan, charleston, lindy hopen, argazkigintzan, coaching, latinoamerikar edota sabel dantzan trebatu nahi? 14 urtetik gora baduzu, orain duzu aukera. Lasarte-Oriako udaleko gazteria sailak gazte ikastaroen matrikula epea irekiko du.

Ikastaro guztiak urritik abenduaren erdialdera arte egingo dira. Ikastaro bakoitzaren prezioa 20 eurotakoia izango da Lasarte-Orian errolatuak daudenentzako, eta 35 eurotakoia herrian errolatutak ez daudenentzako.

Izena eman edo informazio gehiago eskuratzeko, irailaren 22tik 30era Kultur etxeko 3. solairuan dagoen gazteentzako informazio bulegotik pasa. Mugi zaitetz, ikastaro guztietan ikasle kopurua mugatua izango da eta. •

ZUMABURU PARKEA

Zuhaitzak kimatu eta moztuko dira

Segurtasun arrazoiengatik eta goi-tentsioko erreglamendu teknikoak betetzeko, datoen egunetan Iberdrola enpresak Zumaburu parkearen ondoko zuhaitzia kimatu eta moztuko du.

Alkatetzak barkamena eskatzen du lan hauek sortu ditzaketen eragozpenengatik. •

Bekokale bidea itxia

Lasarte-Oriako Udalaren Hiri-gintzako Departamentuak jakinarazten du Bekokale Bidea itxi dela, kiroldegiaren paretik Bekoerrotako bidegurutzeraino.

Espainiaren Iparaldeko Konfederazio Hidrografikoak sustatuta, Lasarte-Oria-Hernaniko ur zikinak bulkatzeko hodiaren lanak direla eta, ematen da kalearen itxiera. Obrak burutzeko epea hilaletara eta urriaren 14an

lanak amaitzea aurreikusten da.

Ordezko bideak

Loidiko tuneletik anbulatorio-rantz joateko, Beko Errota Kaletik egingo da eta erdialdetik Loidiko tunelera joateko ibilbidea, Kale Nagusia-Goikale-Loidi izango da.

Lasarte-Oriako Udalak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik. •



Ur zikinak bulkatzeko hodiaren lanak hasi dira Bekokale bidean.

Ama Guadalupe jaietako lehiaketan irabazleak

Lehenengo asteburuan, Ama Guadalupe Extremadura etxeak antolatutako jaietan hainbat lehiaketa burutu ziren haur eta helduentzat eta jarraian argitaratzen ditugu irabazleak eta sari bereziak.

Haur jolasak eta lehiaketak

Haurrentzako marrazki eta margo lehiaketan Arkaitz Castro eta Ainara Romero izan ziren irabazleak; arrautza eta goilara jokoan, aldiz, Ander

Molinak garaipena lortu zuen eta sari berezia eman zitzaion Ibai Langarikari partehartzaile txikiarena izateagatik.

Aulkien jokoan Illagi Corchero izan zen garaile eta zakuen lasterketan, berriz, Ainara Macias.

Momia egiten azkarrenak, handien mailan, Adriana Bernabe eta Alazne Gonzalez izan ziren eta txikienean, aldiz, Yanire Bajo eta Naiara Martinez.

Helduen txapelketak

Helduei zuzenduak zeuden txapelketei dagokionez, musean, Segundo eta Antonio izan ziren garaile eta tutean, Barrera eta Manu.

Larunbateko dantza lehiaketan, Patxi eta Flori izan ziren onenak.

Emakumeen bola-jokoan Marcela Monroy gailendu zen eta gizonezkoen toka txapelketan Enrique Guijarro izan zen onena. •

Yoga Eskolak hasi du ikasturtea

■ Meditazioa, bideo emanaldia eta hitzaldiak izan dira aste honetan ■ Goren mailako jakitunak etorri dira Lasarte-Oriara yogari buruz jardutera ■ Hasiberrientzat ikastaroa egingo da irailean

Aste honetan Yogari buruzko zenbait hitzaldi eta dokumental emanaldia antolatu ditu Lasarte-Oriako Sanatana Dharma Yoga Eskolak ikasturte berriari hasiera emateko. Kanpotik etorritako adituak aritu dira astelehenean hasi eta egunero besteak beste ipuinen interpretazioari edo espiritualitateari buruz. Bestalde, asteazkenean "Yogaren negozioa" izeneko dokumentala ikusi eta eztabaidatu zuten. Gaur, ostirala, bukatzeko 19:00tan "Bereizitasunaren zientzia" gaiaren inguruan arituko da Brihaspati. Bestalde, astelehenetik aurrera ordu berean hasi berrientzat ikastaro teoriko eta praktikoa eskainiko da. Urtean zehar iluntzero zabalik dago eskola eta goiz batzuetan ere bai.

Jon ALTUNA

Urtean zehar hainbat ikastaro, yoga saioak, meditazioak eta garapen pertsonala lantzen dituen Lasarte-Oriako Yoga eskolak urtero, ikasturteari hasiera berezia ematen dio Yogaren ñabardura ezberdinak hitzaldi eta dokumentalen bidez aztertuz.

Astelehenean hasi zen hitzaldi sorta eta egunero 30 lagun inguru izan da Sanatana Dharma eskolak Zumaburuen duen lekuan. Lehenengo egunean, irailaren 13an hitzaldiaren aurretik taldekako meditazioa egin eta Mantrak kantatu zituzten. Buruan etengabe dabilzkgun pentsamenduetatik askatzeko tresnak omen dira mantrak, eta horretarako errepikatzen edo erreziatzen den soinu edo esaldia erabiltzen dute.

Ipuinen eredua

Ondoren lehen hitzaldia eman zuen Iruñeako Eskolako Akarpanik, Ipuin klasikoaren interpretazioari buruz. Hainbat ipuin eta kondairen errepasoa egin zuen hauek interpretatzen nola ikasi duen azaldu eta azkenik Hiru Txerri txoen ipuinarekin borobiltzeko.

Akarpanik azaldu zuenez urtetan jasotako Yoga ikaspeinei esker, ipuinetan hainbat ezaugarri eta irudi errepikatzen direla konturatu da eta berak nola ulertzen dituen azaldu zuen. "Ipuinek, batez ere klasikoek, eredu bati eusten diote belaualdiz belaualdi. Ipuinak, liburu asko,... gauza berberaz ari dira. Giza-kiak lan egin behar du bizitzan zehar duen zeregina ulertzeko, eta hori askotan ipuinetan ageri da, esan zuen nafarrak.

Hiru Txerri txoen ipuina ulertzeko modu berezia du, izakiak bere bizitzako tarte batean gainditu beharreko hiru oztopoz ari da, bere ustez:

"Hiru txerri txoak, egin beharreko ahaleginaren irudia dira, otsoa sufrimendua da, eta, otsoaz defenditzen dituen etxeak, bakoitzak eraiki behar duen barruko etxea sufrimenduko horri aurre egiteko".

7-8 urte darama Akarpanik Yoga egiten Iruñean, eta bere iritziz "beste ikuspegi bat ematen dizu Yogak, nolabait esateko iluntasun une batean zaudenean; ez da makila magikoa, ez dizkizu arazoak konponduko, baina tresna bat da zuk arazoei aurre egiteko".

Zer da Yoga?

Asteartean Alfredo Iglesias, Druva, jakitunaren hitzaldia jarraitu zuten Sanatana Dharma eskolara hurbildu zirenek. 28 urte darama Yoga eginez eta bere esperientziatik abiatuta Yoga zer den eta zer ez den azaltzen saiatu zen.

Bere ustez, Yogaren bidez norberak benetan bera nor den ezagutzeko aukera du. "Ordura arte, uste nuen banekiela nor nintzen, baina ez. Beraz nortasuna prestatu egin behar



Alfredo Iglesias Druva astearteko hizlaria eta Lasarte-Oriako Yoga Eskolako maixu, Juan Jose Urbietia, Vashistacharia.

da horretara iristeko. Yoga teknika guztiak nortasuna prestatzera bideraturik daude, hau da, barruan integratu eta isildu dadila, ez dezala ezer azaldu, barruko ni sakonak hitz egin dezan. Gorputza, emozioak, adimen eta pentsamendua garesta uste izan dugu, hori badugu baina ez gara hori. Hori ere erlaxazio teknika, arnasketa eta kontzentrazioaren bidez isiltzen diren heinean barruko ateratzen da berez, modu natural batean. Denok lortu dezakegu, kontua praktikatzan hastea da" esan zigun hitzaldia hasi aurretik.

Druvaren ustez, "bizitzan denok ari gara zerbaiten bila, eta gure ikuspegiaren arabera, oro har, bide okerrekin abia-

tzen du jendeak bilaketa. Gauzak, jakituria, pertsonak... ezagutu eta berenganatzearekin lotzen da zorientasuna, kanpoko gauzei baretzekin dugu barnea, alegia; hau guztia ondo egon daiteke baina benetako zorientasuna ni sakon horretan dagoela jakin gabe egiten da".

Asteazkenean "Yoga eta negozioa" izan zen eztabaidarako gaia: dokumental bat eman zen aurrea eta ondoren bildutakoek beren iritzia. Izan ere, aspalditik datorren jardun espiritual, toki batzuetan, AEBetan batez ere, milioi euro asko mugitzen dituen "negozio" bihurtzen ari da, jarraitzaile asko dituzten maisu batzuek badira, batzuk bestee-

kin lehian, eta denetarik saltzen dute, arropa, liburu, web,... Ekialdetik datorren yogaren ipiritua mendebaldean aldatu ote den eta bide okerra hartu ote duen aztertu zuten.

Ostegunean bertako Vashista jakitunak "Espiritualitatea eta Erligioa" gaia jorratu zuen eta gaur amaituko da hitzaldi sorta arratsaldeko 19:00etan "Bereizitasunaren zientzia" Brihaspati-ren hitzaldiarekin.

Hasiberrientzat ikastaroa

Behin hitzaldi sorta amaituta ikasturtea hasteko datorren astean, hasiberriei zuzendutako ikastaroa antolatu dute Lasarte-Oriako Yoga eskolan. 50 euroren truke, saio teoriko eta praktikoko eskainiko dira irailaren 20tik 29ra bitartean arratsaldeko 19:00-20:30 bitartean. Interesatuak 685 773 081 telefono zenbakira deitu dezakete.

Eta urriaren 4tik aurrera hasiko dira Hatha Yoga saioak astelehen eta asteazkenean 18:00-19:30 bitartean; astearte eta ostegunetan 10:30-12:00, 19:00-20:30 eta 20:30-22:00 bitartean; Meditazioa eta Mantrak astelehenean 19:30 eta 20:30 bitartean; Garapen Pertsonala Taldean asteazkenean 19:30-21:30 bitartean. Hau urriaren 6an hasiko da eta irailaren 30a baino lehen eman behar da izena. Norberaren mugak ezagutu eta gaindituz, pertsona bezala garatzen erakusten da batez ere esperientzian oinarrituta. •



Astelehenean, Iruñeako eskolako Akarpanik ipuinen interpretazioari buruzko hitzaldia eskaini zuen 30 lagun aurrean.

Bizikletaren alde onuragarriak

Mugikortasun astean, osasuna eta bizitza aktiboa sustatuko dira, txirrindaren bidez

Mugikortasunaren astea irailaren 20tik 24ra ospatuko da gure herrian. Iazko Mugikortasun astearen antzera, bizikleta izango da protagonista, berritri ere. Oraingoan, bizikleta erabiltzeak dakartzan onurak nabarmendu nahi dira. Horretarako, batetik astelehenean, *Ipar gazia*, *Hego gozoa* izenburuko proiektzioa eskainiko da Kultur etxean eta bestetik, irailaren 24an ostiralean, haurrentzako hainbat ekintza antolatu dira Andatza plazan

TXINTXARRI

Mugikortasunaren europar asteak *Mugitu talentuz eta bizi hobeto* leloa du aurten.

Mugikortasun jasagarria helburu duen ekimen honek, aurten, ohiko garraibideek herritarren eta hiri, zein herrien osasunean duten eragina azpimarratu nahi du eta, era berean, garraibide publikoen erabilera sustatu nahi du, baita herritarrek txirrinda erabili edo oinez joan daitezkeen ere.

Lasarte-Oriako Udalak, aurten ere, bat egin du ekimen honekin. Horregatik, irailaren 20an hasi eta ostiral 24an amaituko den egitaraua prestatu du.

Txirrinda eta bere onurak

Bizikleta izango da, berritri ere, Mugikortasun aste honetako protagonista.

Aurtengo egitaraua, beraz, txirinda erabiltzeak dakartzan onurak nabarmenduz antolatu da. Izan ere, garraibide honi esker, bizitza osasuntsua eta aktiboa eraman daiteke eta.

Bizikletan bidaiatu

Mugikortasun asteari hasiera emateko, astelehenean, iraila-

ren 20an, arratsaldeko 19:00etan, *Ipar gazia*, *Hego gozoa* izenburua duen dokumentala eskainiko da Manuel Lekuona kulturetxeko hitzaldi aretoan.

Guraso eta bi haurrek osatutako familia zikloturista baten eskutik, bizikleta gainean bidaiatuz bizi duten esperientzia ezagutuko dugu.

Hain zuzen ere, 2009an Europar barrena egindako bidaiak aurkeztuko dute. 2 bizikleta, 2 hilabete, 2.000 kilometro 2 haurrekin. Alemania eta Herbeherak, Rhin ibaia, Danubio ibaia edo Ipar Itsasoa bezalako espazio naturala eta Estrasburgo, Munich edo Amsterdam bezalako hiriguneetan murgilduko dira proiektzio hau ikustera hurbiltzen direnek.

Era berean, bizikletazaleen ikuspegitik, mugikortasuna sustatzeko zenbait adibide europar eta haurrekin bizikletaz bidaiatu ahal izateko hainbat truku ematen dituzte.

Inondik ere bizi-esperientziarik garrantzikoenetakoa, Mikel Bringas eta haren emazte Rosak bizikletazko bidaien bitakorari gaineratzeko bizipena, oraingo honetan haien semeekin batera.



Haurrek ederki gozatu zuten jolas eta gymkhanarekin, iazko Mugikortasun astean egin zen bizikleta festan.

Honetaz gain, *Ipar gazia*, *Hego gozoa* dokumentaleko protagonista bat egongo da aretoan bertan, Miguel Bringas eta proiektzioaren ostean, galderak egiteko aukera izango dute hitzaldi-aretoa hurbiltzen diren herritarrek.

Haurrek gozatzeko

Bestalde, irailaren 24an, ostirala arratsaldean herriko guraso, haur eta gaztetxoek txirrindaz gozatzeko aukera izango dute, Andatza plazan, Artelatzek antolatutako hainbat ekimenekin.

Lehenengo ekintza, ohiko bihurtu den, *Haurren III. Bizikleta-martxa* izango da.

Bi txanda desberdinetan parte hartu ahalgo da martxa honetan, 16:00etan, etxeko txikiei emango zaie iteera eta ordu erdi geroago, gazteen eta helduen txanda izango da.

Era guztietako zikloturistentzako moldatutako ibilbide izango da, Andatza Plazatik

abiatu, herriko kaleetatik barrena eta Andatza plazara bueltatuko dira, eta begirale baten laguntzaz egingo da martxa hau.

Honen ostean, herriko txikienek gozatzen jarraitzeko aukera izango dute Andatza plazan bertan.

Izan ere, 17:00etatik 19:30era arte, bizikletarekin jolasak egingo dira eta gymkhanan bere trebezia erakutsi ahalgo dute nahi duten gaztetxoek.

Autorik gabeko eguna

Hau guztiaz gain, irailaren 22an, *Autorik gabeko eguna* ospatuko da.

Aurreko urteetan, Lasarte-Oriako erdigunea itxi egiten zen, gure kaleetatik autorik igaro ez zedin eta oinezkoentzako gune gehiago egon zitezkeen. Aurten, ordean, ezingo da ekimen hau aurrera eraman.

Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun

Departamentuak azaldu digutenez, "egun martxan dauden lanek, gure herriak duen ordenazio eta mugikortasuna hankaz gora jartzen ditu leku faltagatik. Horregatik autorik gabeko egunak duen oinezkoen aldeko aldarrikapena galtzen dela uste dugu."

"Herriko oinezkoek eta gidariek lan hauek, hala nola, Udalak edo Foru Aldundiak egindakoak, onartu dituzte pazientziak eta ez litzateke eraginkorra izango erdiguneko kaleak ixtea," gaineratzen dute.

Honetaz gain, Lasarte-Oriak izan duen bilakaera azpimarratzen dute, "oinetakoentzako kaleak ugartu dira gure herrian, erdiguneko hainbat kale oinezkoentzat dira dagoeneko, Goikale, Bekoerota eta laster Oken-do."

"Beraz, erdigunea oinezkoek uzteak bere zentzua galtzen du," adierazi dute. •



Arg.: www.bizibidaia.net

Mikel Bringas eta bere familiaren bizipenak ezagutu ahalgo dira astelehenean.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak

- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

BOLA-JOKOA

Garcia eta Egaña oroimenezkoa igandean

Igandean, hilaren 19an, Martin Egaña eta Santi Garcíaren ome-
nezk bola-joko oroimenezkoa jokatu da Michelin Udal Kirol
guneko bolatokian.

Ostadarreko bola joko atalak antolatzen duen zaspigarren
edizioa izango da aurtengoa.

Honetan bi maila nagusi izango dira, hots, gizonezkoak eta
emakumezkoak.

Herriko bolariez gain, Gipuzkoa osotik etorritakoak espero
ditu Jose Antonio Montes, antolatzaileetako batek, lehiaketa ire-
kia izango baita. Hala ere, herriko bolari onenek sariak izango
dituzte.

Izen-ematea Michelingo bolatokian bertan egin behar da
10:00etatik 12:00etara. •



Sarituak eta omenduen senideak izako oroimenezkoa bukatu eta gero.

ARETO-FUTBOLA

Izena emateko azken eguna

Ostadar K.F.ko areto-futboleko arduradunek gogora arazten
dute, herriko XXVIII. txapelketan izena emateko azken eguna
dela gaurkoa. Txapelketan parte hartu nahi dutenek, beraz,
Ostadarren bulegora, Geltoki kaleko 25. zenbakira hurbildu
behar dira. •

Chourraut ez zen finalean sartu

Sailkapenean denbora onena lortu zuen, 107 segundu

Lehenengo astean, ur bizi-
tako Mundiala burutu
zen Esloveniako Tacen
kanalean.

Bertan, Maialen Chourraut
herriarrak iaz La Seu d'Urge-
llen eskuratutako K-1 mailako
txapelkun ordetza defendatu
behar zuen.

Lan handia egin behar
izan du Maialenek mundial
hau prestatzeko, piragua
aldatu zuen duela hilabete
eta hilabeteak egin ditu kana-
la ezagutu eta honetara mol-
datzeko.

Sailkapenetan lehena

Horregatik ez da harritzekoa
sailkapenean lehenengo den-
bora egin izana.

Hala ere, lehiaketa ez zen
ongi hasi lasarteoriatarren-
tzat. Lehenengo jaitsieran, ez
zuen zortetik izan. Akats
ugari egin zituen eta 50. pos-
tuan bukatu zuen.

Bigarrenean, ordea, ares-
tian aipatu bezala, denbora
onena egin zuen lasarteoria-
tarrak, 107 segundu.

"Kontzentratu eta lehenen-
go denbora egin dut," aipa-
tzendu Maialenek bere web
gunean.

Honetaz gain, "denbora
honek ez du ezer esan nahi,



Maialenek lan ona egin zuen sailkapeneko bigarren jaitsieran. Arg.: BOBO

maila handiko jendea baitago
txapelketan," abisatzen zuen.

Finaletik kanpo

Finalerdian, berriz, akats bat
egin zuen Chourrautek, "15.
atera arte guztia ongi egin
nuen. Baina planteamendu
akats bat egin eta uste baino
beherago erori naiz saltoaren
ostean eta 10 segundu galdu
ditut."

Honela, finaletik kanpo
geratu zen lasarteoriatarra.

"Ez dut esango pozik nagoe-
nik, baina ez nago goibel ere.
Hobetzeko eta palista hobe-
a izateko gogoak ditut. Hurren-
go batean izango da," adiera-
zi zuen finalaren ostean.

Taldeak

Honetaz gain, beste bi gipuz-
koarrekin batera, Jone Otaño
eta Irati Goikoetxea, taldeka-
ko K-1 mailan lehiatu zen
Maialen eta hamargarren pos-
tua eskuratu zuten. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 18

10:30ean, Urola-Ostadar
(Infantilen Ohorezko Maila)
Argixao, Zumarragan.

11:00etan, Ostadar-Hernani
(Kadeteen Ohorezko Maila)
Michelin.

12:30ean, Ostadar-Tolosa
(I. Jubenila) Michelin.

15:30ean, Ostadar-Touring
(Erregional Goren) Michelin

15:30ean, Real Union-Ostadar
(Jubenilen Ohorezko Maila) Gal,
Irunen..

17:15ean, Texas Lasartearra-
Usurbil (I. Erregionala) Michelin.

17:30ean, Tolosa-Ostadar
(Emakumezkoen Erregionala)
Usabal, Tolosan.

19:30ean, Vasconia-Ostadar
(I. Erregionala) Puio, Donostian.

Igandea 19

10:30ean, Ostadar-Tolosa
(I. Kadetea) Michelin.

12:00etan, Sporting de Herre-
ra-Ostadar (Infantil txikiak)
Herrera, Donostian.

PILOTA

Ostirala 17

19:00etan, Intxurre-Intza
(Eskuz binaka I. Kadetea)
Ikaztegieta.

21:15ean, EPLE I-Intza
(Eskuz binaka III. Seniorra)
Fanderia, Erreterian.

Larunbata 18

16:00etan, Intza-Zumaia
(Eskuz binaka III. Kadetea)
Michelin.

16:00etan, Intza-Aurrera Saiz 2
(Eskuz binaka I. Seniorra)
Michelin.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 19

8:30ean, Ostadarreko ziklotu-
rista taldeak Arriarango presara
egingo du itteera.

BOLA-JOKOA

Igandea 19

10:00etan, Santi Garcia eta
Martin Egaña VII. oroimenezkoa,
Kirol guneko bolatokian.

Kiroletako oharrak

Udal Kirol jarduerak

Lasarte-Oriako Kirol Udal Zer-
bitzuak 2010-2011 kirol jardue-
ren izen ematea ireki du.
Kurtsoei buruzko informazioa
eta ordutegiak eskuratzeko
kiroldegira hurbildu edo 943
376 182 telefono zenbakira
deitu behar da.

Ostadarreko Futbol eskola

Ostadarreko futbol-eskolan
izena-eman duten haurrak eta
haien gurasoak elkarteke bule-
gotik, Geltoki kalea 25 zenbakitik
hurbil daitezke Futbol Eskolako
informazioa jasotzera.

Bulegoa arratsaldeko 16:00eta-
tik 20:00etara dago irekia.

Buruntzaldea I.K.T.

Buruntzaldeko Igeriketa Kirol
taldeko neska-mutilek hasi
dituzte 2010-2011 denboraldia
prestatzeko entrenamenduak
Udal Kiroldegiko igerilekuan.

Arduradunek jakin arazi digu-
tenez, denboraldi hasieran zehar
taldean sartzeko aukera badago
oraindik, beraz inor interesatu-

rik egonez gero, haiekin harre-
manetan jartzea besterik ez du.

Informazioa nahi duenak 696
506 673 telefono zenbakira
deitu, Ruben, edo irailan zehar
18:00etatik 19:30era kiroldegian
Borjagatik galdegin dezala.

Beltzak-Ostadar Errugby Eskola

Oporren ostean, Beltzak-Osta-
dar Errugby Eskola lanean hasi
da, Michelingo Kirol Gunean.
Entrenamenduak igandero dira
9:00etatik aurrera..

Eskolako arduradunek 2002ko
abenduan 31a baino lehen jaiot-
tako haurrei deialdia egiten
diete entrenamendura hurbildu
eta kirol hau ezagutzeko.

Eskolan izena emateko hiru
aukera daude, bata Ostadarreko
bulegoan, bestea 666 321 059
telefono zenbakian edo bel-
tzakrt.com web orrialdean.

LOKEko tenis atala

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko
tenis atala lanean hasi da 2010-
2011 denboraldia prestatzeko.

Ordutegi eskaintza izako bera

da. Hala ere, haur eta gaztetxo-
ak, Michelingo Kirol Gunea
hurbil daitezke 18:30etik
20:30era entrenamendu ordute-
giak jakin eta arduradunek tal-
deak osa ditzaten.

Era berean, kirol honetan lehe-
nengo pausuk eman nahi dituz-
ten herritarren izena ematea
irekia dago..

LOKEko gimnastika atala

LOKEko gimnastika atalanean
dago, aurrebenjaminetako nes-
kak izan ezik.

Entrenamenduetako ordutegia
honako hau izango da, ostegun eta
ostiraletan 19:00etatik 20:00etara;
larunbatetan, benjaminak
12:00etatik 13:00etara eta beste
mailak 12:00etatik 14:00etara.

Aurrebenjaminak urriaren 2an
hasiko dira eta larunbatetan
izango dute bere saioa,
11:00etatik 12:00etara.

Izena emateko entrenamendu
orduetan kiroldegira gerturatu
edo 676 872 029 telefono zen-
bakiar deitu behar du interesa-
tuak.

Egunero

Erakusketa

GOIZANE MENDIZABALEN argazkiak izango dira ikusgai. Argazkiek inguruko herritako paisaiak eta txokoak islatzen dituzte. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.

Astelehena, 20

Bideoforuma

IPAR GAZIA, HEGO GOZOA proiektzioa eskainiko da Mugikortasunaren Astearen barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etatik aurrera.

Ostirala, 24

Jaialdia

HAURREN III. BIZIKLETA-MARTXA Mugikortasunaren Astearen barruan. Andatza plaza, 16:00etatik aurrera.

Kontzertua

BUFFALO taldearen emanaldia. Taldea David Gorospek (bateriano) Ander Ederrak (gitarra) eta Joanes Ederrak (baxua) osatzen dute. Talde instrumental honek jazz rocka jorratzen du batez ere. Jalgin, 23:00etan, EUSKARAZ.



Udazken festa Zabaletan

UDAZKEN FESTA ospatuko dute urtero bezala Zabaleta auzokoek. Aurren ere sardin janarekin emango diote ongi etorria udazkenari.

GAUR, HILAREN 17AN
ZABALETA AUZOAN
20:30ETIK AURRERA

Larunbata, 25

Azoka

STOCK ETA SALDOEN III. AZOKA antolatu du Aterpea merkatarri-elkarteak, Lasarte-Oriako Udaltzaren laguntzarekin. Azoka irailaren 25 eta 26an, Michelingo Udaltzaren laguntzarekin. Larunbatean 10:00etatik 20:00etara eta igandean 10:00etatik 18:00etara.

Urteurrena

MENDI KAFE ROCK tabernaren VI. URTEURRENA dela eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte bertan: 11:00etan hamaiketakoa tabernan; 13:00etan motor eta autoen erakusketa S. Pedro elizaren ondoan; 14:30ean bazkaria eta ondoren Transistores 50 taldearen emanaldia. Iluntzean zozketak egingo dira eta opariak banatuko dituzte tabernan.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxari@txintxari.info helbidera bidaliz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarrrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketa-ekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pultsera eta kamisetak beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Elikadura, intolerantzia eta desordenei buruzko hitzaldia Usurbilen

DYAK elikadura, elikadura asaldurak, intolerantzia eta desordenei buruzko hitzaldia antolatu du.

Hitzaldia irailaren 21ean izango da, asteartea, 19:00etatik 21:00etara Usurbilgo Alperro Buru 3-Behea zenbakian dagoen "GURE PAKEA" izeneko Zaharren Egoitzan.

Parte-hartze gisako formatuan gai hauek jorratuko dira, eta azaltzen diren eduki teorikoetatik gain, esku-hartzaileen testigantza eta bere aholkuei eta iritziei buruzko mahai-inguru bat antolatu da. Edozein argibideetarako 943 46 46 22 telefonora deitu edo posta elektronikoki bat bidali helbide honetara: irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com.

Udako Txokotako argazkiak urrian

Udara honetan, uztaila eta abuztua, Ttakun Kultur Elkartek antolatutako txokotan egondako haurren argaz-

kiak jasotzen dituzten CDak eskuragarri egongo dira urritik aurrera Amarrun Iudotekan (Ola kalea 1). Argazkien CDa jasotzeko ordutegia honakoa da 17:00etatik 20:00etara.

Ikasturte hasiera Estudio del pintor akademian

Heldu, zein umeentzako margo klaseak hasi dira Estudio del Pintor akademian. Ez da matrikularik ordaindu behar eta ordutegi malguak dituzte. Interesatuak hurbildu Urko Plaza 1 zenbakira, Sasotetan edo deitu 943 367 731 telefono zenbakira.

Oztabide auzo-elkarteko bilera

Arranbide eta Oztaran-eko bizilagunei jakinarazten zaie, Oztabide auzo-elkartek bihar larunbata bilera egiteko deia egin duela. Irailaren 18an goizeko 11:00etan Oztabideko lekalean, Oztaran ikastetxearen atzekaldean, burutuko da bilera. Zalantzarik izanez gero, deitu 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefono zenbakietara edo idatzi oztabide@hotmail.com helbide elektronikora.

Margo eta marrazki eskola

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaroetako izen-ematea irailaren 17, 20, 22, 24, 27 eta 29an egingo da, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 12 behean duten egoitzan.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxari@txintxari.info

Eskutitzak

Sanmarko mankomunitatea: 'Merinori zerbait gestioatzeko zorroztasuna falta zaio'

Errenteriako alkatea den Juan Carlos Merino egindako adierazpenen aurrean, Sanmarko mankomunitateak hurrengo hau azpimarratu nahi du:

1.-Juan Carlos Merino Sanmarko mankomunitateko gestioarekin hain kezkatuta dago, Sanmarko biltzarreko kide izanik, legegaldien hasieran egindako batzarra baino ez dela joan. Hiru urte

hauetan burutu diren gainerako batzarretan bere utzikeria nabarmen utzi du, ez da bakar batera agertu ere egin.

2.- Hain nabaria da Errenteriako alkatearen zorroztasuna, publikoki adierazi duela Sanmarko mankomunitateak "Usurbilgo udaletxearen ehundaka milioi eurotan baloratu-tako makina bat dohainik utzi diola", mankomunitateko urteko aurrekontua 24 milioi euro denean. Zorroztasun eza horrek, Merinoren gaitasun maila edo kudeatzeko zalantzan jartzen du.

3.- Juan Carlos Merino ez du Sanmarko mankomunitatea ikuskatuko, izan ere

mankomunitateak azken hiru urte hauen auditoria martxan jarri baitu. Auditoria honek gainera, argi utziko du egungo gobernu taldeak aurrera eramandako gestioaren zuzentasuna eta eraginkortasuna.

4.- Juan Merino nahi dituen adierazpen guztiak egin ditzake, baina errealtatea tematia da. Atez ateko bilketa duten herritan bilketa selektiboak %80 inguru dagoen bitartean, Merinok kudeatzen duen Errenteria herriak, ez du %32a gaindizten. Datu ofizialak dira hauek eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaz gain, Ecoembes eta Covidrio insti-

tuzioak eta gainerako gestio ofizialek emandako datuak dira.

5.- Errenteriarrek urte guzti hauetan Sanmarkoko zabortearen ondorioz pairatu behar izan dituzten usain eta kontaminazioa kontutan hartuta, Merino jaunak ez du ezer egin hondakin organiko guzti hori birziklatzeko; ez du gaikako biltzarrik ezarri, ez atez atekoa, ez bosgarren zaborrontzirik, ezta autokonpostadorak banatu Errenteriako familien artean. Merino jaunak zaborte eta errausketen alde egin du bere bizilagunen osasuna arriskuan jarritz.

6.- Azkenik, gobernu taldeak adierazi nahi du Sanmarkoko hiri esparruetan zaborren bilketa selektiboa sustatzeko aurrera eramandako estrategia orain amaitzeaz dagoen legealdian zehar arrakastatsua izan dela. Usurbil, Hernani eta Oiartzun herriei esker Diputazioak bultzatutako ereduaren aurrean atez atekoa alternatiba izan daitekeela, gainera beste ereduak baino emaitza hobetoak lortuz.

Imanol Azpiroz
San Marko mankomunitateko lehendakaria
ERREDAKZIOAN ITZULIA

Zurea bai zortea berriro martxan

Buruntzaldeko herritarrek euskara ikasteko dituzten erraztasunak aurkeztu dira

Buruntzaldeko herrietako euskaltegiek prentsaurreko bateratua eman zuten astelehenean Urnietako Lekio Kultur etxean.

Honetan, eskualdeko *Zurea bai zortea* kanpainaren nondik norakoak azaldu zituzten, hala nola, herritarrek euskara ikasteko dituzten erraztasunak eta herritarrei euskara ikasten hasteko deia egin zieten.

Urnietako Mikel Izagirre alkatea eta Nerea Eraunzetamurgil, Usurbilgo Euskara zinegotziak hartu zuten hitza aurrena, bigarren urtez martxan jartzen den ekimenaren garrantzia gogoratzeko.

Eraunzetamurgil izan zen, hain zuzen ere, kanpainaren helburuak zehaztu zituen, "lehenengo gertutasuna da, herritar gehienek pauso batean baitute euskaltegia, herria bat edo bestea izan. Bigarrena euskara ikasteko

eskaintza zabala da, maila asko eskaintzen baitira, eta hirugarrena, euskara ikasleek lor ditzaketen diru-laguntza kopuru handia."

Elebakar gutxiago

Hernaniko eta Astigarragako AEKko Luis Intxauspe zuzendariak xehetasun gehiago eman zituen.

Helburua gero eta hitzun elebakar gutxiago egotea omen da, "alegia, gaztelania hutsez bizi edo mintzatzen diren kopurua murriztea, pixkanaka."

Intxausperen ahotan, helburua ez da soil-soilik euskararen normalizazioa, "euskara ikastera animatzen den herritarren aberastasuna baizik."

Buruntzaldeko web gunea

Euskaltegiek bi bide erabiliko dituzte herritarrei kanpainaren berri emateko, batetik eskualdeko hainbat enpresei posta



Arg.: Urnietako Udala

Ezkerretik: J. Arbelaitz, M. Izagirre, O. Urduñapilleta, A. Sarasola, L. Intxauspe, J.M. Asurabarrena eta N. Eraunzetamurgil.

bidez helaraziko zaie, eta bestetik www.buruntzaldea.org web gunearen erabilera sustatu nahi dute.

Joseba Arbelaitz Hernaniko Udal Euskaltegiko zuzen-

dariak eman zituen web gunearen xehetasunak.

Eskualdeko orrialdean euskaltegien atalean norberaren maila zein den jakiteko aukera izanen du erabiltzaileak, baita

maila horren arabera zein aukera izango duen eskualdeko euskaltegiatan. Eta euskara ikasten hasi nahi dutenek web gunean bertan egin ahal izango dute matrikula. •

Euskara ikasteko aukera

Diru-laguntzak
%40 - %75
2010-2011

ona eta merkea

Edozein lasarte-orientarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Beke kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 17ra

Muntteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 25era

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

